



Espediente zk./Nº Expediente: 2022IGOB0003

Gaia/Asunto: Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local 2022/03/01

Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko martxoaren 01ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

Errenteriako Udaletxean, 2022ko martxoaren 01ako 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

Elkarrekin Errenteria

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

1. 2022ko otsailaren 15ean eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada. (2022IGOB0002)

Oharririk gabe onartu da.

2. "Errenteriako Galtzarabordako Udal Kiroldegiaren, Fanderiako udal Igerilekuen eta Beraungo Igerilekuen instalazioen kudeaketa, kirol ustiapena, ur sorospena, mantentze-lanak

Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 01 de marzo de 2022.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 01 de marzo de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejales y Concejales:

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

Elkarrekin Errenteria

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria del 15 de febrero de 2022. (2022IGOB0002)

Se aprueba sin observación alguna.

2. Adjudicación del "Servicio de gestión, explotación deportiva, socorrismo acuático, mantenimiento y limpieza de las instalaciones del Polideportivo municipal de Galtzaraborda,



eta garbiketa zerbitzua" adjudikatzea.
(2021OZER0040)

Piscinas de Fandería y Piscinas de Beraun de Errenteria". (2021OZER0040)

2021eko abenduaren 9ko Alkatezaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen "Errenteriako Galtzarabordako Udal Kiroldegiaren, Fanderiako udal Igerilekuen eta Beraungo Igerilekuen instalazioen kudeaketa, kirol ustiapena, ur sorospena, mantentze-lanak eta garbiketa zerbitzua" kontratatzeko, prozedura Murriztuaren bidez eta ohiko izapidea.

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 9 de diciembre de 2021 se incoó expediente para la contratación del "Servicio de gestión, explotación deportiva, socorrismo acuático, mantenimiento y limpieza de las instalaciones del Polideportivo municipal de Galtzaraborda, Piscinas de Fandería y Piscinas de Beraun de Errenteria", mediante procedimiento Restringido y tramitación ordinaria.

Baliozko epean proposamen bat (1) aurkeztu da eta hau da: "SERVIOCIO, CULTURA DEPORTES Y RECREACIÓN, S.L."

Visto que en plazo hábil se ha presentado una (1) proposición correspondiente a "SERVIOCIO, CULTURA DEPORTE Y RECREACIÓN, S.L."

2022ko otsailaren 14an Kontratazio Mahaiak proposatu zuen Roberto Ramos Piñeiro Jauna, "SERVIOCIO, CULTURA DEPORTE Y RECREACIÓN, S.L."-ren ordezkari gisa, adjudikazio-hartzaile izatea, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, urte BATeko (1) iraupenarekin, beste urte batez luzatzeko aukerarekin eta emakidadunak 299.000 euroko kanona jasoko du (BEZa ez da aplikagarria).

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 14 de febrero de 2022, proponiendo como adjudicatario a D. Roberto Ramos Piñeiro, en representación de "SERVIOCIO, CULTURA DEPORTE Y RECREACIÓN, S.L.", al cumplir con los requisitos establecidos en la licitación, con una duración de UN (1) año, prorrogable por otro año más y un canon a percibir por el concesionario de 299.000 euros (IVA no aplicable).

Proposatutako adjudikazio-hartzaileari eskatu zaio, hamar (10) laneguneko epean, hainbat dokumentazio aurkeztea, baita behin betiko bermea ezartzea ere; hain zuzen ere, 180.000 eurotako bermea.

Visto que se ha requerido a la empresa adjudicataria propuesta, para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportara diversa documentación así como que depositara una garantía definitiva por importe de 180.000 euros.

Enpresa interesatuak eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita behin betiko bermea ere.

Visto que la empresa interesada ha aportado la documentación requerida y la garantía definitiva.

Udal Kontuhartzaleak fiskalizazio txostena egin du.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal.

ZUZENBIDE OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Sectore Pulikoko Kontratuaren Legea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa)

- Ley de Contratos del Sector Público (Ley 9/2017 de 8 de noviembre.



Kontratazio-mahaiko Presidenteak egindako erabaki-proposamena, eta Kontratazioko eta Ondareko Arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatek eskudetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

Vista la propuesta de acuerdo del Presidente de la Mesa de Contratación y la conformidad dada por el Responsable de contratación y patrimonio a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ERABAKI DU

1. ADJUDIKATZEA Roberto Ramos Piñeiro Jaunari, "SERVIOCIO, CULTURA DEPORTE Y RECREACIÓN, S.L." (IFK: B-15416845)-ren ordezkari gisa, "Errenteriako Galtzarabordako Udal Kirolegiaren, Fanderiako udal Igerilekuen eta Beraungo Igerilekuen instalazioen kudeaketa, kirol ustiapena, ur sorospena, mantentze-lanak eta garbiketa zerbitzua" emateko kontratua, urte BATEko (1) iraupenarekin, beste urte batez luzatzeko aukerarekin eta emakidadunak 299.000 euroko kanona jasoko du (BEZA ez da aplikagarria). Hori guztia lizitazioa arautu duten baldintza administratibo eta baldintza teknikoen agirietan jasotakoaren arabera, baita espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzaren arabera ere.

Ondorio horietarako indarrean dagoen Gipuzkoako titulartasun publikoko kirol instalazioen hitzarmen kolektiboa aplikatuko da.

2.- IZENDATZEA kontratuaren Arduradunak, Luis Peña, Kiroletako Arduraduna.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari, erabaki honen jakinarazpena bidali den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, betiere erabakia egun berean argitaratzen bada kontratzailearen profilean (Bestela, epea hasiko da kontatzen jakinarazpena jaso den egunaren biharamunean), ondorengo hamabost (15) egun baliadun baino lehenago ez, kontratua elektronikoki sinatu dezan administrazio dokumentuan.

ACUERDA

1º.- ADJUDICAR a D. Roberto Ramos Piñeiro, en representación de "SERVIOCIO, CULTURA DEPORTE Y RECREACIÓN, S.L." (CIF: B-15416845) el contrato para la prestación del "Servicio de gestión, explotación deportiva, socorrismo acuático, mantenimiento y limpieza de las instalaciones del Polideportivo municipal de Galtzaraborda, Piscinas de Fandería y Piscinas de Beraun de Errenteria", con una duración de UN (1) año, prorrogable por otro año más y un canon a percibir por el concesionario de 299.000 euros (IVA no aplicable), de conformidad con los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han regido la licitación, así como a la oferta del adjudicatario que consta en el expediente.

A estos efectos, será de aplicación el Convenio Colectivo de Instalaciones Polideportivas de titularidad pública de Gipuzkoa.

2º.- DESIGNAR al Responsable de Deportes, Luis Peña, Responsable del contrato.

3º.- REQUERIR asimismo al adjudicatario para que no antes de que transcurran quince (15) días hábiles contados a partir del siguiente a la remisión de la notificación del presente acuerdo, siempre que éste se publique el mismo día en el perfil del contratante (En otro caso, el plazo comenzará al día siguiente de la recepción de la notificación), formalice electrónicamente el contrato en documento administrativo.



4.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa Errenteriako Udalaren Kontratatzailearen Profilean, iragarki baten bidez.

5.- XEDATZEA 299.000 eurotako gastua (BEZa ez da aplikagarria) A-545-2022 zorpekoaren kontura,

4º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

5º.- DISPONER el gasto de 299.000 euros (IVA no aplicable) con cargo al contraído: A-545-2022.

3. "Irisgarritasuna hobetzea. Galtzaraborda Ibilbidea 36-52 zk. Proiektuari dagozkion obrak" adjudikatzea. (2021OLAN0016)

3. Adjudicación de las "Obras incluidas en el Proyecto: Mejora de la accesibilidad. Rampas en la Avda. Galtzaraborda, 36-52" (2021OLAN0016)

2021eko urriaren 28ko Alkatezaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen "Irisgarritasuna hobetzea. Galtzaraborda ibilbidea 36-52 zk. Proiektuari dagozkion obrak" kontratatzeko, prozedura Irekiaren bidez eta ohiko izapidea.

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 28 de octubre de 2021 se incoó expediente para la contratación de las "Obras incluidas en el Proyecto: Mejora de la accesibilidad. Rampas en la Avda. Galtzaraborda, 36-52", mediante procedimiento Abierto y tramitación ordinaria.

Baliozko epean proposamen bat (1) aurkeztu da eta hau da: "URBYCOLAN, S.L.".

Visto que en plazo hábil se ha presentado una (1) proposición correspondiente a "URBYCOLAN, S.L.".

2022ko urtarrilaren 10ean Kontratazio Mahaiak proposatu zuen José Miguel Gracenea Alonso Jauna, "URBYCOLAN, S.L."-ren ordezkari gisa, adjudikazio-hartzaile izatea, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, hamabi (12) asteko exekuzio epearekin eta 149.786,14 euroko prezioarekin (%21 BEZa barne).

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 10 de enero de 2022, proponiendo como adjudicatario a D. José Miguel Gracenea Alonso, en representación de "URBYCOLAN, S.L.", al cumplir con los requisitos establecidos en la licitación, con un plazo de ejecución de doce (12) semanas y un precio de 149.786,14 euros (21% IVA incluido).

Proposatutako adjudikazio-hartzaileari eskatu zaio, hamar (10) laneguneko epean, hainbat dokumentazio aurkeztea, baita behin betiko bermea ezartzea ere; hain zuzen ere, 6.189,51 eurotako bermea.

Visto que se ha requerido a la empresa adjudicataria propuesta, para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportara diversa documentación así como que depositara una garantía definitiva por importe de 6.189,51 euros.

Enpresa interesatuak eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita behin betiko bermea ere.

Visto que la empresa interesada ha aportado la documentación requerida y la garantía definitiva.

Udal Kontuhartzaleak fiskalizazio txostena egin du.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal.



ZUZENBIDE OINARRIAK

- Sektore Pulikoko Kontratuaren Legea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa)

Kontratazio-mahaiko Presidenteak egindako erabaki-proposamena, eta Kontratazioko eta Ondareko Arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU

1. ADJUDIKATZEA José Miguel Gracenea Alonso Jaunari, "URBYCOLAN, S.L." (IFK: B-20679514)-ren ordezkari gisa, "Irisgarritasuna hobetzea. Galtzaraborda ibilbidea 36-52 zk. Proiektuari dagozkion obrak" gauzatzeko kontratua, hamabi (12) asteko exekuzio epearekin eta 149.786,14 euroko prezioarekin (%21 BEZa barne). Hori guztia lizitazioa arautu duten baldintza administratibo eta baldintza teknikoen agirietan jasotakoaren arabera, baita espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzaren arabera ere.

Ondorio horietarako indarrean dagoen Gipuzkoako eraikuntza eta obra publikoetako sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatuko da.

2.- IZENDATZEA kontratuaren Arduradunak, Ramón Ruiz de Mendoza, udal Arkitektoa.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 15 laneguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontaktzen hasita, kontratua elektronikoki sinatu dezan administrazio dokumentuan.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ley de Contratos del Sector Público (Ley 9/2017 de 8 de noviembre).

Vista la propuesta de acuerdo del Presidente de la Mesa de Contratación y la conformidad dada por el Responsable de contratación y patrimonio a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

1º.- ADJUDICAR a D. José Miguel Gracenea Alonso, en representación de "URBYCOLAN, S.L." (CIF: B-20679514)" el contrato para la ejecución de las "Obras incluidas en el Proyecto: Mejora de la accesibilidad. Rampas en la Avda. Galtzaraborda, 36-52", con un plazo de ejecución de doce (12) semanas y un precio de 149.786,14 euros (21% IVA incluido), de conformidad con los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han regido la licitación, así como a la oferta del adjudicatario que consta en el expediente.

A estos efectos, será de aplicación el Convenio Colectivo del Sector de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa.

2º.- DESIGNAR al Arquitecto municipal, Ramón Ruiz de Mendoza, Responsable del contrato.

3º.- REQUERIR asimismo a la empresa adjudicataria para que en el plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, formalice electrónicamente el contrato en documento administrativo.



4.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa Errenteriako Udalaren Kontratatzailearen Profilean, iragarki baten bidez.

5.- XEDATZEA 149.786,14 eurotako gastua (%21 BEZ barne) A-3549-2021 zorpekoaren kontura,

4º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

5º.- DISPONER el gasto de 149.786,14 euros (21% IVA incluido) con cargo al contraído: A-3549-2021.

4. Errenteriako Esnabide Kaleko 18. eta 20. zenbakietan eraikitako 27 etxebizitza, merkataritzako beheko solairua eta 2 soto dituen eraikinaren lehen erabilpen baimena (32. sektorea: Esnabide, A-1 lurzatia). (2020HOHA0006)

4. Licencia de primera utilización del edificio de 27 viviendas, planta baja comercial y 2 sótanos construido en Esnabide Kalea 18 y 20 de Errenteria (Sector 32: Esnabide, Parcela A-1). (2020HOHA0006)

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 6an erabaki zuen **obra BAIMENA EMATEA** JUAN RAMON RUIZ DE ARCAUTE AUZMENDIri **BRITAC PROYECTOS SL**ren izenean, **ESNABIDE 32. Sektoreko A1 lurzatian 27 etxebizitza, garaje eta merkataritza-lokaleko eraikina egiteko lizentzia**, Mikel Ochoa Ayerdi arkitektoak idatzitako "*Proyecto Básico 27 viviendas, garaje y local comercial*" proiektuaren arabera eta dokumentazio osagarria, arkitekto berak idatzia (justifikazio-memoria, plano berriak PB-A101-PPR1: P1 sotoko solairua / P2 sotoko solairua eta PB-A102-PPR1: P1 erdisotoko solairua / P2 beheko solairua, eta justifikazio memoria.

La Junta de Gobierno Local mediante acuerdo de 6 de octubre de 2020 concedió a JUAN RAMON RUIZ DE ARCAUTE AUZMENDI, en representación de **BRITAC PROYECTOS SL**, **licencia para la construcción de un edificio de 27 viviendas, garajes y local comercial en la Parcela A1 del Sector 32: ESNABIDE**, según "*Proyecto Básico 27 viviendas, garaje y local comercial*", redactado por el arquitecto Mikel Ochoa Ayerdi y la Documentación Complementaria al Proyecto Básico, redactado por el mismo arquitecto y consistente en una memoria justificativa, nuevos planos PB-A101-PPR1: Planta Sótano P1/ Planta Sótano P2 y PB-A102-PPR1: Planta Semisótano P1/ Planta Baja P2, y la Justificación Acústica

2021eko abenduaren 20an aipaturiko obrak burutzeko emandako baimenaren baldintzen arabera, eskatzaileak lehen erabilerarako baimena eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu zuen:

Finalizadas las obras, de acuerdo con el condicionado de la licencia concedida para la realización de las obras referidas, el peticionario presentó con fecha 20 de diciembre de 2021 junto con la solicitud de la licencia de primera utilización, la siguiente documentación:

1.- Obra Bukaerako Egiaztagiria, Mikel Ochoa Ayerdi sinatua(e)k, EHAEOak ikus-onetsia 2021/12/16e/an, hala nola Ainhoa Albistegi Bernedo arkitekto

1.- Certificado Final de Obra, suscrito por Mikel Ochoa Ayerdi, visado por el C.O.A.V.N el 16/12/2021, así como por la arquitecto técnico Ainhoa Albistegi



teknikoak sinatua, Gipuzkoako AATEOak ikus-onetsia 2021/12/03e/an.

2.- Obraren behin betiko likidazioa, teknikari horiek sinatua eta EHAEOak ikus-onetsia 2021/12/16e/an, hala nola Gipuzkoako AATEOak ikus-onetsia 2021/12/03e/an.

3.- Eraikinetako fatxadetako argazkiak.

4.- Obra Bukaerako Dokumentazioa, Memoria eta Planoak, teknikari horiek idatziak eta EHAEOak ikus-onetsiak 2021/12/16e/an.

Eraikina ikuskatzeko bisita egin eta gero konprobatu da obrak bat datozela aurkezturiko obra bukaerako dokumentazioarekin, non banaketan egindako aldaketa txikiak erakusten diren. Aldaketa horiek indarrean dagoen hirigintzako araudiarekin bat datoz.

2022ko otsailaren 22an sinatu da ESNABIDE 32 SEKTOREA FASE A-1 URBANIZATZEKO OBRETAKO HARRERA AKTA.. Urbanizazioa loturik dago eskabidearen xedeko eraikinari.

Ikusi da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren 4/86 Legeak ezarritakoaren arabera honekin batera doala "Eraikuntza eta Etxebizitza Estatistika" inprimakia behar bezala beterik.

2022ko otsailaren 23an Udal arkitektoak lehen erabilpen baimenaren aldeko txostena egin du.

Ikusita Hirigintzako ordezkari delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Hirigintzako aholkulari juridikoak espedienteen jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

Bernedo visado por el C.O.A.A.T. de Gipuzkoa el 03/12/2021.

2.- Liquidación definitiva de la obra, suscrita por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N. el 16/12/2021 y del C.O.A.A.T. de Gipuzkoa el 03/12/2021 .

3.- Fotografías de las fachadas de los edificios.

4.- Documentación Fin de obra, Memoria y Planos redactados por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N. de 16/12/2021.

Realizada visita de inspección al edificio se comprueba que las obras se ajustan a la documentación final de obra presentada, en la que se han reflejado pequeños cambios en la distribución. Estas modificaciones se ajustan a la normativa urbanística vigente.

Se ha firmado con fecha 22 de febrero de 2022 el ACTA DE RECEPCIÓN DE LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN DEL SECTOR 32: ESNABIDE-FASE1A", urbanización vinculada a la edificación objeto de la solicitud.

Visto que se adjunta el impreso de "Estadística de Edificación y Vivienda" debidamente cumplimentado, en función de lo establecido en la Ley 4/86 de Estadística de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El arquitecto municipal con fecha 23 de febrero de 2022 emite informe favorable a la concesión de la licencia de primera utilización.

Vista la propuesta de acuerdo del Concejal Delegado de Urbanismo y la conformidad dada por el Asesor Jurídico de Urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por



unanimidad,

ERABAKI DU

LEHENENGOA: Ematea JUAN RAMON RUIZ DE ARCAUTE AUZMENDIri **BRITAC PROYECTOS SL**ren izenean, **ESNABIDE KALEKO 18 eta 20 zenbakietan (Esnabide 32. sektoreko A-1 lurzattia) eraikitako 27 etxebizitzako, merkataritzako beheko solairuko eta 2 sotoko eraikineko lehen erabilerako baimena**, aurkeztutako obra amaierako dokumentazioaren arabera, erabaki honen azalpen zatian aipatzen den.

Etxebizitzen ezaugarria:

27 etxebizitzak era honetan banatu dira:

- **Esnabide kalea, 20 zk:**15 etxebizitzak
 - behegaina solairua: 3 etxebizitza
 - 1. solairua: 3 etxebizitza
 - 2. solairua: 3 etxebizitza
 - 3. solairua: 3 etxebizitza
 - 4. solairua: 3 etxebizitza duplexean

teilatupean

- **Esnabide kalea, 18 zk:**..... 12 etxebizitzak
 - 1. solairua: 3 etxebizitza
 - 2. solairua: 3 etxebizitza
 - 3. solairua: 3 etxebizitza
 - 4. solairua: 3 etxebizitza duplexean teilatupean

18. zenbakiko beheko solairua merkataritza-lokaletarako da, bai eta instalazio-geletarako eta zerbitzu komunetarako ere.

Sotoko eta erdisotoko solairuetan 42 garaje-plaza (horietako bat bikoitza) eta 27 trasteleku egokitu dira.

Baimen hau emateak ez dakar berekin jarduera eta irekitze baimena izatea, ez eraikineko beheko

ACUERDA

PRIMERO: Conceder a JUAN RAMON RUIZ DE ARCAUTE AUZMENDI, en representación de **BRITAC PROYECTOS SL**, licencia de primera utilización para el edificio de 27 viviendas, planta baja comercial y 2 sótanos construido en **ESNABIDE KALEA 18 y 20 (Parcela A-1 del Sector 32: ESNABIDE)** según la documentación final de obras presentada y que se hace constar en la parte expositiva.

Características de las viviendas:

Las 27 viviendas se distribuyen de la siguiente manera:

- **Esnabide kalea, nº 20:**15 viviendas

- Planta Entresuelo: 3 viviendas
- Planta 1ª: 3 viviendas
- Planta 2ª: 3 viviendas
- Planta 3ª: 3 viviendas
- Planta 4ª: 3 viviendas en duplex con la bajo

cubierta

- **Esnabide kalea, nº 18:**12 viviendas

- Planta 1ª: 3 viviendas
- Planta 2ª: 3 viviendas
- Planta 3ª: 3 viviendas
- Planta 4ª: 3 viviendas en duplex con la bajo

cubierta

La planta baja del nº 18 se destina a local comercial, además de a cuartos de instalaciones y servicios comunes.

En las plantas sótano y semisótano se han habilitado 42 plazas de garaje (una de ellas doble) y 27 trasteros.

La concesión en su caso, de la presente licencia no presupone el otorgamiento de la licencia de actividad



solairuan instalatuko diren lokal komertzialetarako ez soto eta erdisotoko garajetarako. Horiek tramitatu beharko dira indarrean dagoen legediaren arabera.

BIGARRENA: Dagozkien zergak **ordainduko dira 3.289.663,92 euro**tako zerga oinarrien arabera.

HIRUGARRENA: Esnabide Baserriari Esnabide Kalea, 8 izena ematea ondorio guztietarako.

y apertura de los locales comerciales a instalar en la planta baja del edificio ni de los garajes del sótano y semisótano, que se deberán tramitar conforme a la normativa vigente.

SEGUNDO: Se abonarán los correspondientes derechos municipales sobre la base de **3.289.663,92 euros**.

TERCERO: asignar al Caserío Esnabide a todos los efectos la denominación Esnabide Kalea, nº 8.

5. Sailkatutako jarduera-lizentzia, eta industria-nabea egokitzeko obra-baimena ematea, jarduera zabaltzeko, berunezko baterien hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera barne hartzeko, Errenteriako MASTI-LOIDI 3B zenbakian (2021HSAE0007)

5. Licencia de actividad clasificada y licencia para las obras de acondicionamiento de la nave industrial para la ampliación de la actividad, para incluir la actividad de gestión de residuos peligrosos de baterías de plomo, a desarrollar en la calle MASTI-LOIDI 3B (2021HSAE0007)

2021eko ekainaren 9ko erregistro sarrerako datarekin, Agustin Echevarria Bañuelosek, proiektu teknikoa aurkeztu du, Errenteriako udalerrri honetako MASTI-LOIDI KALEA 3B pabiloian, jarduera zabaltzeko jarduera- eta obra-lizentzia eskatuz, **hondakin arriskutsuak diren berunezko bateriak kudeatzeko jarduera gehitzeko.**

Con fecha de registro de entrada 9 de junio de 2021, Agustin Echevarria Bañuelos, hace entrega del Proyecto técnico solicitando la licencia de actividad y de obras para **ampliación de la actividad para incluir la actividad de gestión de residuos peligrosos de baterías de plomo**, sito en la calle MASTI-LOIDI 3B de éste término municipal de Errenteria.

2021eko irailaren 16an auzotarrak audientzian hartuak izan ziren, eta ez zuten inolako alegaziorik egin.

Con fecha 16 de septiembre de 2021 se da audiencia a los vecinos, sin que se produzca ninguna alegación.

Espedientea jendaurrean jarri zuten, 2021eko irailaren 23an, 183 zenbakiko GLHAOn txertaturiko iragarkiaren bidez, eta horri ere ez zitzaion alegaziorik egin.

Sometido el expediente a información pública, mediante inserción de anuncio en el B.O.T.H.G. n.º 183 de fecha 23 de septiembre de 2021, no se ha producido alegación alguna.

2021eko urriaren 4an Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak aldeko txostena eman zuen, eta hainbat baldintza ere ezarri zituen. (Sarrera erregistroko data:

Con fecha 4 de octubre de 2021 el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco emite informe favorable, estableciendo diversos condicionantes. (fecha de



2021/10/7)

2021eko urriaren 19an Maria Luisa Oiartzabal udal ingeniari teknikoak, jardueraren aldeko txostena egin du zenbait kuestio bete beharreko baldintzekin.

2021eko urriaren 26an, Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, jarduera zabaltzeko sailkatutako jardueraren espedientearen aldeko irizpena eman zitzaion, berunezko baterien hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera barne hartzeko.

2022ko otsailaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Neurri Zuzentzaileen Ezarpenari buruzko txostena egin du.

2022ko otsailaren 11n, Maria Luisa Oiartzabalek, industria ingeniari teknikoak, txostena egin zuen Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak berretsiz.

Era berean, 2022ko otsailaren 11n, Maria Luisa Oiartzabalek, industria ingeniari teknikoak, industria-nabea egokitzeko obra-baimenari buruzko txostena egin zuen.

registro de entrada: 7/10/2021)

Con fecha 19 de octubre de 2021 la ingeniero técnico industrial municipal, Maria Luisa Oiartzabal, emite informe favorable a la actividad condicionada al cumplimiento de diversas cuestiones.

Con fecha 26 de octubre de 2021, mediante Resolución de Alcaldía se informa favorablemente el expediente de la actividad clasificada para la ampliación de la actividad, para incluir la actividad de gestión de residuos peligrosos de baterías de plomo.

Con fecha 8 de febrero de 2022, el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco emite informe de Medidas Correctoras.

Con fecha 11 de febrero de 2022, la ingeniero técnico industrial municipal, Maria Luisa Oiartzabal, emite informe ratificando las medidas correctoras impuestas por el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Asimismo, con fecha 11 de febrero de 2022, la ingeniero técnico industrial municipal, Maria Luisa Oiartzabal, emite informe sobre la concesión de la licencia para las obras de acondicionamiento de la nave industrial.

Legeri aplikagarria.-

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Hirigintza Arauen "Bigarren Sektorreko Erabilerrako Lurzatiaren Erabiltzeko eta Eraikitzeko Ordenantzak". 4.3 kapitulua.
- Laneko Segurtasun eta Higiene Erregelamendua.
- 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua.

Legislación aplicable.-

- Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de la Administración Ambiental de Euskadi.
- Capítulo 4.3 "Ordenanzas de Uso y Edificación de las parcelas de Uso del Sector Secundario: Industrial" del Plan General de Ordenación Urbana de la Villa de Errenteria.
- Reglamento de Seguridad e Higiene en el Trabajo.
- Real Decreto 1027/2007, de 20 de julio, Reglamento de Instalaciones Térmicas en los



Edificios.

- 68/2000 Dekretuak, apirilaren 11koa (00-06-12ko EHAA), garatzen du "Euskal Autonomia Erkidegoko Irisgarritasuna Sustatzeko" 20/1997 Legea, abenduaren 4koa.
- Behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa.
- Establezimendu Industrialen Suteen Aurkako Segurtasuneko Erregelamendua (2267/2004 ED).
- Eraikitze Kode Teknikoaren SI, SUA eta HE izeneko Oinarrizko Dokumentuak (314/2006 ED).
- 833/1975 Dekretua, otsailaren 6koa, atmosferara isuritako Partikula Emisioen Maila eta Kontrola mugatzen duena.
- 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitatea eta atmosfera babesten dituena.
- Errenteriako Zarata eta Bibrazioen Ordenantza.
- Orokorrean egingo den jarduera mota dela eta aplikatu dakiokkeen beste edozein Araudi.
- Decreto 68/2000, de 11 de abril (BOPV 12-06-00), que desarrolla la Ley 20/1997, de 4 de diciembre "Promoción de la Accesibilidad" de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión.
- Reglamento de Seguridad Contra Incendios en los Establecimientos Industriales (R.D.2267/2004).
- Documentos Básicos SI, SUA, HS, HE y HR del Código Técnico de Edificación (R.D. 314/2006)
- Decreto 833/1975 de 6 de febrero, que delimita el Nivel y Control de Emisiones de Partículas a la Atmósfera.
- Ley 34/2007, de 15 noviembre, de calidad del aire y protección de la atmósfera.
- Ordenanza Municipal de Ruidos y Vibraciones.
- En general cualquier otra Normativa que pudiera afectarle para el desempeño de la actividad que se pretende legalizar.

Hirigintzako zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU

1.- Agustin Echevarria Bañuelos jaunari **ematea** Errenteriako MASTI-LOIDI 3B zenbakian, **jarduera zabaltzeko sailkaturiko jarduera-lizentzia, berunezko baterien hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera barne hartzeko**, beti ere Jarduera Proiektuaren arabera. Lizentzia baldintzaturik dago espedientean jasota dagoen

Vista la propuesta de acuerdo del Concejal Delegado de Urbanismo y la conformidad dada por el Asesor Jurídico Municipal a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

1.- **Conceder** a Agustin Echevarria Bañuelos, la **licencia de actividad clasificada para la ampliación de la actividad, para incluir la actividad de gestión de residuos peligrosos de baterías de plomo**, a desarrollar en la calle MASTI-LOIDI 3B de este término municipal de Errenteria, de acuerdo con el Proyecto de Actividad, condicionada



baldintzei buruzko txostenari, zehazki Maria Luisa Oiartzabal, industria ingeniari teknikoak 2021eko urriaren 19an eginikoari eta era berean, espedientean jasota dagoen 2022ko otsailaren 8ko neurri zuzentzaileak betetzeari.

2.- Interesdunari **eskatzea** jarduera ipini aurretik aurkez ditzan ondoko agiriak: Udaleko industria ingeniari teknikoak 2021eko urriaren 19an eginiko txostenean adierazitakoa bete duela egiaztatzen duena, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 2021eko urriaren 4ko txostenean adierazitakoa, hala nola, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2022ko otsailaren 8ko txostenean adierazitakoa. Eta jarduera sailkaturiko lizentzian agindutako neurri zuzentzaileak ezarrita daudenean eta instalazioak egokituta daudenean, jarduerari ekin ahal izateko, **AURREKOMUNIKAZIOA**ren araubidea bete beharko da.

3.- Agustin Echevarria Bañuelos jaunari, industria-nabea egokitzeko **obra baimena ematea**, hain zuzen MASTI-LOIDI kalea 3.B zenbakian, gaur egun dagoen hondakin metalikoak biltegitatzeko eta kudeatzeko jarduera (txatarregia) zabalduz, **hondakin arriskutsuak diren berunezko bateriak kudeatzeko jarduera jartzea** burutu dadin, hurrengo BALDINTZA BEREZIAK ETA OROKORRAK betetzekotan:

BALDINTZA BEREZIAK

1.- Jarraian adieraziko diren baldintzapenak bete beharko dira:

1.1.- Udal ingeniari teknikoak 2021eko urriaren 19an egindako txostenean adierazitakoak.

1.2.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2021eko urriaren 4ean egindako txostenean adierazitakoak.

1.3.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2022ko

al informe de los requisitos que constan en el expediente y en concreto en el informe de la ingeniero técnico industrial, Maria Luisa Oiartzabal, de fecha 19 de octubre de 2021, y al cumplimiento de las medidas correctoras de fecha 8 de febrero de 2022 y que constan en el expediente.

2.- **Requerir** a la persona interesada para que, previamente a la apertura de la actividad, presenten la documentación que acredite el cumplimiento de lo señalado por la ingeniero técnico industrial municipal en su informe de fecha 19 de octubre de 2021, por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco en su informe de fecha 4 de octubre de 2021, así como por el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco en su informe de fecha 8 de febrero de 2022. Y una vez implantadas las medidas correctoras impuestas en la licencia de actividad clasificada y habilitadas las instalaciones, el inicio de la actividad estará sujeto aun régimen de **COMUNICACIÓN PREVIA**.

3.- **Conceder** a Agustin Echevarria Bañuelos, **la licencia de obras** de acondicionamiento de la nave industrial para la **inclusión de la actividad de gestión de residuos peligrosos de baterías de plomo** ampliando la actividad existente de almacenaje y gestión de materiales metálicos de desecho (chatarrería), en la calle MASTI-LOIDI 3.B, debiéndose cumplir las siguientes CONDICIONES ESPECIALES Y GENERALES:

CONDICIONES ESPECIALES

1.- Se deberán cumplir los condicionantes establecidos por:

1.1.- La ingeniero técnico municipal en su informe de fecha de 19 de octubre de 2021.

1.2.- El Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco en su informe de fecha de 4 de octubre de 2021.

1.3.- Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno



otsailaren 8an egindako txostenean adierazitakoak.

Vasco en su informe de fecha de 8 de febrero de 2022.

BALDINTZA OROKORRAK

CONDICIONES GENERALES

1. Lizentziaren epeak.

Obrak lizentziaren jakinarazpena jasotzen denetik gehienez sei (6) hilabeteko epean hasi beharko dira eta gehienez hiru (3) hilabeteko epea izango da bukatzeko, hasten direnetik aurrera kontatzen hasita. Obrak gehienez hamabost (15) eguneko epean eten daitezke. Aipatutako epeetan hasi gabe edo bukatu gabe egongo balira, emandako lizentziaren luzapena eskatu beharko da.

1. Plazos de la licencia.

Las obras deberán iniciarse en el plazo máximo de seis (6) meses a contar desde la notificación del acuerdo de concesión de licencia, y finalizar antes de tres (3) meses contados desde el comienzo de las obras. La interrupción máxima de las obras no podrá ser superior a quince (15) días. Si no hubieren dado comienzo o no se hubieran terminado transcurridos los respectivos plazos, deberá ser solicitada la prórroga de la licencia concedida.

2. Lanak hasi aurretik.

2.1.- GUNE PUBLIKOA EDO ERREPIDEAK OKUPATU EDO MOZTU BEHAR BADIRA. Obrak erabiliko diren hesia, kontainerra, materialak biltzeko eremua edo maniobrak egitekoa, aldamiok, garabia edo bestelako baliabide osagarriek gune publikoak osorik edo zati batean hartzen badituzte, edo errepideak moztu edo aparkatuta dauden ibilgailuak kendu behar badira, hori guztia Udaleko ZU! Zure Udala Herritarren Arreta Zerbitzuari jakinaraziko zaio gutxienez 3 lan egun aurretik, obraren ezaugarrien arabera herri jabaria hartzen den kasuetarako aurreikusita dauden irizpideak ezar ditzan, eta, hala badagokio, herri jabarian guneak mugatzeagatik edota ibilgailuak kentzeagatik ordaindu beharreko zerga ezar diezaion.

2. Antes del inicio de las obras.

2.1.- En el supuesto de que el vallado, container, zona de acopio de materiales o espacio de maniobra, andamiaje, grúa u otros medios auxiliares a emplear en la obra INVADIERA ESPACIOS PÚBLICOS PARCIALMENTE O EN SU TOTALIDAD, O FUERA NECESARIO PROCEDER AL CORTE DE VIALES o al desalojo de vehículos estacionados, deberá comunicarse dicha circunstancia en el Servicio de Atención Ciudadana ZU! del Ayuntamiento en un plazo de tiempo no inferior a tres días hábiles con la finalidad de establecer los criterios previstos para la ocupación de acuerdo a las características de la obra y proceder al abono en su caso de los tributos correspondientes por acotamiento de espacios en vía pública y/o desalojo de vehículos.

3. Obra gauzatu bitartean.

3.1.- LIZENTZIA ESKURAGAI. Obrak dirauen bitartean lizentzia hau obra tokian egongo da, Udaltzaingoak edota udal zerbitzu teknikoek eskatuz gero eskura izan dezaten.

3. Durante la ejecución de las obras.

3.1.- LICENCIA DISPONIBLE. Esta autorización se encontrará en el lugar del emplazamiento de la obra, durante el transcurso de la misma y a disposición de la Policía Local o de los servicios técnicos municipales cuando éstos la requieran.

3.2.- Obra egiteko beharrezkoa balitz hito higigarrien bidez itxitako sarrera edo oinezkoentzako eremua zeharkatzea, eskaria egingo da eremu horiek irekitzeko zenbakidun giltza eskuratzeko.

3.2.- Si para el desarrollo de la obra fuera preciso atravesar una zona de acceso restringido o peatonal limitado por hitos móviles, se solicitará mediante instancia el préstamo de una llave



3.3.- Egingo diren obrek ez dute eraikinaren egitura aldaraziko. Lanek erakinaren egituran eraginik izanez gero edo gerora eraikuntza-elementuetan arazorik sortuz gero, teknikari eskudun baten esku-hartzea eskatu ahal izango da eta horrek egindako lana dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi beharko du.

3.4.- Egin beharreko obrek ez dute eraikinaren instalakuntza orokorren funtzionamendua eragotziko, ezta udal sare desberdinena ere.

3.5.- LANGILEAK ETA OINEZKOAK BABESTEAK. Obrek dirauten bitartean egun indarrean dauden segurtasun neurriak hartuko dira, oinezkoak nahiz lanean ari diren langileak babesteko.

3.6.- KONTAINERRA ERABILTZEKO jabari publikoa hartzeko baimena izapidetu beharko da ZU! Zure Udala Herritarren Arreta Zerbitzuan.

3.7.- DEBEKATUTA dago obrako hondakinak BAIMENIK GABEKO ZABORTEGIETARA BOTATZEA.

3.8.- Kanpoko arotz-lanak (burdinxareak) ezin izango dira eraikinaren fatxadaren lerrokaduratik kanpo irten.

3.9.- Kanpoaldean kartelak, letreroak, irtenuneak (iraunkorrek ala ez iraunkorrek) bidezko udal baimena eskatu beharko da.

3.10.- Ur-kontagailuek irakurketa urrutitik egin ahal izateko seinaleak bidaltzeko instalazioa izango dute. Hori dela eta, irrati bidezko IZAR irakurketa sistema erantsia duten kontagailuak instalatuko dira, ABERING markakoak edo homologatuta dauden antzekoak, eta Udal Ur Zerbitzuaren irakurketa terminalarekin bateragarriak izango dira. Horri buruzko argibide gehiago behar izanez gero, interesatuak aipatu Udal Zerbitzuarekin jarri beharko du harremanetan (943.44.96.07 telefono zenbakia). Era berean, edateko Udal ur horniketa zerbitzua arautzen duen Erregelamendua aplikatu

numerada para la apertura de los mismos.

3.3.- Las obras a realizar no podrán afectar a la estructura del edificio. En el supuesto de que las obras afectasen a elementos estructurales o bien provocasen problemas posteriores en elementos constructivos, se podría requerir la intervención de un técnico competente, visándose el trabajo realizado por el Colegio Oficial correspondiente.

3.4.- Las obras no afectarán al correcto funcionamiento de las instalaciones generales del inmueble ni de las diferentes redes municipales.

3.5.- Se adoptarán mientras duren las obras, las vigentes medidas de seguridad para la PROTECCIÓN DE LOS OPERARIOS Y DE LOS VIANDANTES.

3.6.- Para la UTILIZACIÓN DE CONTAINER, en su caso, se deberá tramitar en el Servicio de Atención Ciudadana ZU! del Ayuntamiento la solicitud tipo ocupación de vía pública .

3.7.- SE PROHIBE DEPOSITAR los escombros procedentes de la obra en VERTEDEROS NO AUTORIZADOS.

3.8.- Los elementos componentes de la carpintería exterior (rejillas) no podrán sobresalir de la alineación de fachada del edificio.

3.9.- Para la instalación de carteles o letreros exteriores, elementos salientes (permanentes y no permanentes), deberá solicitarse la correspondiente licencia municipal.

3.10.- Los contadores de agua contarán con la instalación adecuada para el envío de señales para lectura a distancia. En este sentido, se instalarán contadores con sistema de radio lectura IZAR incorporado, marca ABERING o similar homologado y compatible con el terminal de lectura del Servicio Municipal de Aguas. Para recibir más indicaciones a este respecto el interesado deberá ponerse en contacto con dicho Servicio Municipal. (telf. 943.44.96.07). Así mismo, es de aplicación el "Reglamento regulador del servicio municipal de abastecimiento de agua



behar da (GAO, 92-11-16).

4. Obra amaitu ondoren.

4.1.- Obrak burutu ondoren eta instalakuntzak erabili baino lehen, **Jarduera Hasieraren Aurre Komunikazioa aurkeztea** derrigorrezkoa izango da. Horretarako 2021eko urriaren 19an Udal Ingeniari Teknikoak burututako txostenean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da Udalean.

Lanen aurrekontua

1.072,50 €-ko aurrekontua dute eskatzen diren lanek. Beraz, zenbateko horri dagozkion udal zergak ordainduko dira.

Baimendutako Lanak

Obra-lizentzia honekin bakarrik egin ahal izango dira aurrekontuan azaltzen diren obrak eta eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazten direnak.

4.- Kudeaketa Txostenaren bitartez, Lurralde Batzordeari honen **berri ematea**.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidentek bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2022ko martxoaren 01a

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin

potable" (BOG 16-11-92).

4. Finalizadas las obras

4.1.- Concluidas las obras y antes de utilizar las instalaciones será preceptiva la **presentación de la Comunicación Previa de Inicio de Actividad** para lo que previamente se deberán aportar a este Ayuntamiento la documentación solicitada en el informe de la Ingeniera Técnica Municipal de fecha 19 de octubre de 2021.

Presupuesto de las obras

El presupuesto de los trabajos asciende a la cantidad de **1.072,50 €**. Por tanto, se abonarán los correspondientes derechos municipales sobre esta cuantía.

Obras permitidas

La presente licencia ampara exclusivamente a las obras que se presupuestan y relacionan en la documentación presentada y correspondiente a la solicitud realizada.

4.- **Dar cuenta** a la Comisión de Territorio a través del Informe de Gestión.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:30 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 01 de marzo de 2022

ERRETERIAKO UDALA
Idazkaritza



AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA
Secretaría General



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU624d0f7e-1811-4403-840f-a66ad6c2c031**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGOB0003-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)